

MKB Mercedes Kareaga Bekaren Epaimahaiaren akta

2022ko ekainaren 29an, Eibarko udaletxeko bilera-aretoan, MKB Mercedes Kareaga Bekaren Epaimahaia bildu da, goizeko 11:00etan, Bekaren Oinarrietako 5. atalaren arabera eratua eta hitza eta bozka duten honako kide hauekin osatua:

Jon Iraola Iriondo, alkatea

Unai Belaustegi Bedialauneta, Historia Garaikidean doktoorea (UPV/EHUko Historia Garaikidea Sailak izendatutako aditua)

Yolanda Ruiz Urbón, Eibarko udal artxibozaina

Begoña Azpiri idazkariak adierazi du aurkeztu den hautagai bakarrak, bete egiten dituela Bekaren Oinarrietan adierazitako eskakizun guztiak eta Epaimahaikideei aurretik bidali zitzaizela hautagaiak aurkeztutako dokumentazioa, azter zezaten.

Epaimahaikideak gaiaren inguruan aritu dira eta honako alderdi hauek azpimarratu dituzte sakon aztertu duten ikerketa-proposamenaren inguruan:

- . Ez du inolako berritasunik islatzen aurretik egin zen biografiarekiko.
- . Iturri- eta datu-bildumaren kontakizunera mugatu da, ikerketa historikoari tarte gutxi utzita.
- . Ez ditu ikerketa akademiko bat abiatzeko egin behar diren oinarrizko galderak ondo aurkezten eta erantzuten, eta erantzuten saiatzen bada ere, oso azalean geratzen da.
- . Metodologia aldetik protagonista ez du jarri historiaren erdigunean eta ez ditu antolatu gainontzeko gertaera historikoak protagonistaren inguruan, alderantziz baizik: testuinguruak agindutako gertakariak nabarmendu ditu.
- . Proiektuaren ahulgune nagusia proiektuaren gauzapenean datza: jada idatzita dagoen biografia baten antzekoa eraikitzea proposatzen du, haren egiturari jarraituz; ez ditu beste iturri historiko batzuk erabiltzen eta ez du inolako berritasunik.
- . Informazio-iturriak ematean ez du aipatu nahitaezko dokumentazioa (Gobernu Zibila, Merkataritza Ganbara...).
- . Proposamenak ikerketa historiko batean egin ezin daitezkeen akats metodologiko garrantzitsuak ditu, eta originaltasun falta du Mercedes Kareaga bezalako figura baten nortasun poliedrikoari heltzeko orduan.

Horren ondorioz, aho batez, Epaimahaiak erabaki hau hartu du:

2022ko MKB Mercedes Kareaga Beka **hutsik lagatzea**

Eibarren, 2022ko ekainaren 29an

Jon Iraola Iriondo, alkatea



Unai Belaustegi Bedialauneta, Historian doktorea (UPV/EHU)

A handwritten signature in blue ink, consisting of several loops and a long horizontal stroke.

Yolanda Ruiz Urbón, Eibarko Udalaren artxibozaina



Begoña Azpiri Eguren, idazkaria

